



LAN DEIALDIA:

Administrazio eta finantza arduraduna

Kanaldude telebistak administrazio eta finantza arduraduna bilatzen du, proiektu kooperatiboa eta tokiko komunikabidearen garapena sendotzeko

Lanpostuak finantzaketa estrategia, kudeaketa administratibo-finantzarioa eta harreman instituzionaletan parte hartzea eskatzen du. Euskaraz eta frantsesez lan egiteko, antolatua eta tokiko errealitatea ezagutzen duen profil bat bilatzen dugu 2026ko irailetik goiti Bidarrain lan egiteko.

EGINKIZUN NAGUSIAK

Finantzaketa eta harreman instituzionalak

- ~ Zuzendaritza taldearekin batera finantzaketa estrategia zehaztea.
- ~ Diru-laguntza funtzionalen, proiektu-finantzaketen, partaidetza-hitzarmenen, mezenasgoaren eta Europako dispositiboen dosierren ekoizpena, idazketa eta gainbegiratzea gidatzea.
- ~ Diru-emaila eta partaide publiko zein pribatuekin harremanak zaintzea eta garatzea.

Estrategia eta garapena

- ~ Zuzendaritzarekin gogoeta estrategikoan parte hartzea (garapena, inbertsioak, partaidetzak, barne-antolaketa) Kanalduderen proiektua bere baloreekin bat sendotzeko.
- ~ Giza baliabideen politika zehaztu eta plantan ezartzea: kontratazioetan parte hartzea, lanpostuen bilakaera, elkarrizketa profesionalak, lansariak, kontratuak eta lan baldintzak.

Aurrekontu eta finantza kudeaketa

- ~ Urteko aurrekontu orokorra eta proiektuetako aurrekontuak lantzea, arloko arduradunekin elkarlanean.
- ~ Aurrekontu eta kontabilitate jarraipena segurtatzea (fakturazioa, ordainketak, diruzaintza).



BILATZEN DUGUN PROFILA

- ~ Gutxienez Bac +3 mailako diploma eta esperientzia esanguratsua antzeko kargu batean, KSletako (Kultura eta Sormen Industriak), sozietate kooperatibo batean edo erakunde publiko batean.
- ~ Euskara eta frantsesa ahoz eta idatziz menperatzen dituzu.
- ~ Lurraldearen eta bertako eragile instituzional, ekonomiko eta kulturalen ezagutza ona duzu.
- ~ Ikus-entzunezkoen eta komunikabideen ekosistema ezagutzen duzu (ekoizpena, postprodukzioa, hedapena, emisioa).
- ~ Zorroztasuna, antolaketa gaitasuna eta proposamen-indarra dituzu, talde-lanean aritzeko sena izanik.
- ~ B permisa (lurraldean barna joan-etorriak).

LAN BALDINTZAK

- ~ Kontratu mota: CDI / lanaldi osoa (35 ordu astean).
- ~ Lan lekua: Bidarrai.
- ~ Soldata: Télédiffusion hitzarmen kolektiboaren arabera (IDCC 3241).
- ~ Hasiera : 2026eko irailak 1.

HAUTAGAITZA

Mila esker zure CVa eta motibazio gutuna euskaraz eta frantsesez igortzeagatik info@kanaldude.eus helbidera, maiatzaren 17a aitzin.